



1.22. ariketa

Gainditu erronka: egin lekua, bota balio ez dizuten gauzak eta utzi lekua gauza berriei. Eginahala eskatzen duen zeregina da.

Hastea kosta egiten da, eta ohikoa izaten da badaezpadako horretan erortzea, ez dugulako gure bizitzetan gauza material eta mental berriei lekua egiteko aukerarik eman nahi.

Praktikatu lekua egitearena

1. pausoa - Idatzi etxeko zein txokotan egin nahi duzun lekua:

2. pausoa - Ikusi zein den txokorik errazena lekua egiteko eta zama emozional txikiena duena, hortik hasi. Garrantzitsua: izan eskura:

- Zabor poltsak, kartoi poltsak, errafiazkoak...
- Zuk zeuk mugitzeko moduko kutxak.
- Zinta itsasgarria, orri zuriak, etiketak, guraizeak eta bolaluma.
- Saskiak, esekigailuak, kutxak, latak...

Bereizi objektuak hiru multzotan:

1		2		3
Erabiltzen dituzun gauzak		Erabiltzen ez dituzun gauzak		Botatzeko diren gauzak
Bereizi		Bereizi		
Maite duzuna	Maite ez duzuna	Oraindik gorde nahi duzuna	Dohaintzan emango duzuna	Ipini zabor poltsatan
Ordenatu itzazu: Esekigailu etan, kutxetan, latetan, saskietan Jar itzazu eskura gelditzen zaizun leku batean, erraz hartzeko moduko leku batean	Bota itzazu: Ongi badaude: sartu birziklatzeko poltsan edo kutxan eta aprobetxatu norbaiti emateko. Ongi ez badaude: sartu zabor poltsetan. Sailkatu edukiontziaren arabera.	Ordenatu kutxatan: Idatzi orri batean zer dagoen bakoitzean. Itsatsi etiketa edo zerrenda kutxaren kanpoaldean. Itxi kutxa eta idatzi zein egunetan itxi zenuen. Gorde ezazu zeure bistatik urrun.	Ipini poltsa edo kutxa batean, eta eman aprobetxatuko duen norbaiti.	Ipini edukiontzi egokietan.